



Benta Berriko bolatokian sartu eta su eman diote bertako gauzei

ETXEBERRI auzoan dagoen Benta Berriko bolatokian norbait sartu eta bertako zenbait gauzari su eman zien atzo goizaldean. Arduradunek Kronikari jakinarazi diotenez mahaia, aulkia, argazki panel bat eta abar erre dituzte, eta armario barruan zeuden brila batzuk ere ikututa gelditu dira. “Grazia egitera” sartu direla jakinarazi dute arduradunek, “beste helbururik gabe, horretaraxe”. Gaur albiste hobeak ere badira bolariantzat, Presidente Txapelketako azken tiraldia jokatu baita Ereñotzun. Tiraldia, goizean 10:00etan eta arratsaldean 16:30etan. / 6

Dantzari Festa atzo bukatu zen, dantza taldeetako gaztetxoenen eskutik

DANTZARI Festak atzo dantzatu zuen azken agurra, aurtengo, aste osoko jardunaren ondoren. Hernani eta inguruko herrietako dantzari txikiak aritu ziren atzo jo eta su Hernaniko kaleetan barrena. Irun eta Anoetako dantza taldeak eta Donostiako hiru dantza talde aritu ziren arratsalde partean, eta iluntzean Alkarkide (Alkartasunaren Dantzari Ohiak) taldeko dantzariak eman zioten bukaera aste mugituari. Egunero-egunero izan dugu ekitaldiren bat: Euskal Herri osoko dantzariak Hernaniko auzoetan, euskal jantzien erakusketak, Patxi Perezekin dantzaldia, erromeriak, dantzari txikien eguna... / 4

❖ IGANDE MUSIKATUAK

Musika gaur Tilosetan

Udaberri Igandeko Sargoria saioen barruan gaur musika jartzaileak izango dira Tilosetan. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. ||

◆ ZIKLOTURISTAK

Biriatura irteera gaur

Zikuñako Ama zikloturista taldeak Biriatura irteera egingo du gaur. 63 kilometroko bidea da. ||

❖ EHE

Bertsolari eta trikitilariekin hamaiketako gaur

Euskal Herrian Euskaraz taldeak Hizkuntz Eskubideen Astea antolatu du, hizkuntza eskubideak bermatu daitezela aldarrikatzeko. Gaur hasiko dira ekitaldiak. Goizeko 11:00etan, Plaza Berrin, bertsolari eta trikitilariekin hamaiketako izango da. Maiatzaren 3an, udal herrietako hizkuntza politikei buruzko hitzaldia izango da, 19:30etan, Biterin. ||

GAUR KRONIKAN

Hernaniko 6 musika taldek disko berria **Presoen alde** / 2

Dantzari festa / 4

KIROLA: Atletismoa, saskibaloia, arrauna, futbola, bola, boleibola... / 6

Denborapasa, agenda / 7

Sagastialdeko etxeek 50 urte bete dituzte / 8



Bost gol ospatu zituen atzo Hernanik. Hernanik 5 Berio 0

GOL festa ikusi zuen atzo arratsaldean Zubipera inguratu zen futbolzaleak, talde zuriberdeak 5-0 irabazi baitzion Donostiako Berio taldeari. Itxuraz partidu borrokatuagoa behar zuen izan atzokoak, Berio 8garren baitzijoan atzorarte sailkapenean, baina sailkapenean baino askosaz alde haundiagoa izan zen zelaian atzo. Talde zuriberdea momentu onean dago eta sailkapeneko bigarren postuan jarraituko du sendo. Lau partidu gelditzen dira liga amaitezko eta liderra urruti xamar badago ere, bigarren postuak igoerako promozioa jokatzeko ematen duen aukerari eutsi nahi dio gutxienik Hernanik. / 7

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

**Eguneroko ogia beti bikain**

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani



TILIN * TOLON
BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK
KONTSULTAK
☎ 943 55 56 94

Txirrila, 10 - HERNANI

biokbi
optika

PROBA ITZAZU
LENTILAK
UDA HONETAN!

Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86

**Zuretzako lentila egokienak aurkituko ditugu eta...**

gustokoen dituzun eguzkitako betaurrekoak erabili ahal izango dituzu!!

R.P.S. 174/06

Herriko sei musika talde bilduta 'Askatasun Garraxiak' diskoa atera dute, euskal presoen eskubideen alde

'The Zepo', 'Nazka', 'Suburbio', 'Mercenarios', 'Afonía' eta 'Orreaga 778' taldeen bina abestirekin osatu dute diskoa. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak sustatutako ekimena izan da 'Askatasun Garraxiak' diskoa.

ASKATASUN Garraxiak izenarekin diskoa kaleratu dute herriko sei musika taldek eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. *The Zepo*, *Nazka*, *Suburbio*, *Mercenarios*, *Afonía* eta *Orreaga 778* taldeen bina abesti entzun daitezke presoen eskubideen aldeko disko honetan. Diskoa salgai dago dagoeneko herriko tabernetan, 8 euroan, eta atzo emandako prentsaurrekoan azaldutakoaren arabera, biltzen den dirua dispertsioak preso senideei suposatzen dien diru gastuan laguntzeko erabiliko da.



Musika taldeetako zenbait kide eta ekimenaren sustatzaileak, atzoko prentsaurrekoan.

pena ere luzatu zieten prentsaurrekoan, "euskal preso politikoen eskubideen defentsan lan egiteko eta antzeko ekimenak aurrera ateratzeko".

Herriko talde berriak

Musikariak adierazi zuten pozik daudela "disko hau osatzearen eta euskal preso politikoen alde eragiteko balioko dutelako beren abestiak". Azpimarratu zuten diskoan parte hartu duten taldeak Hernanin sortu eta ari ziren direnak direla denak, "gainera horietako batzuentzat lehen argitalpena izango da" esan zuten.

Diskoa osatzen duten talde ia denak punk estilokoak dira eta aipatu dute *Askatasun Garraxiak* bildumak herrian estilo honek izan duen gorakadaz jabetzeko ere balioko duela, herriko taldeak ezagutarazteaz gain. "Horregatik eta lehen aipaturakoagatik", herritarrei diskoa erosteko deia egin diete, "ondo inbertitutako 8 euro izango direlako". ■

soen egoeraren berri eman zuten. Esan zuten preso egoera gero eta larriagoa dela, "eskubide zibil eta politiko gehienak zantzuak izaten dira, honen helburua preso eta senide eta lagunak sufrimenduaz baliatuz egoera politikoa baldintzatzea da". Eskubide zapalketa horien artean aipatu dituzte, "gaixotasun larriak

dituzten presoak kartzelan mantentzea, kondena bete dute presoek askatasuna ukatzea edo euskal preso politikoa Espainia eta Frantziako kartzelatan etxetik milaka kilometrotara egotea".

Dispertsioak presoek eragiteaz gain, familia eta lagunei ere eragiten diela azaldu zuten, "milaka kilometro egin behar

dituzte astero, eta horrek dakarren istripu arriskuez gain, gastu ekonomikoa suposatzen du". Diskoaren bidez gastu ekonomikoa horri aurre egiten lagundu nahi dutela adierazi zuten, eta "aurrera begirako ekimen berrien pizgarri" ere izatea nahi lukete.

Herriko beste talde eta elkarte desberdinei gonbida-

❖ GOIZ EGUZKI

Maitzaren 1eko ospakizunak

Goiz Eguzki zentro sozialean urtero bezala maiatzaren 1eko ospakizuna egingo dute. Goizeko 11:00etan hildakoen aldeko meza egingo dute. Eguerdiko 12:00etan udaberriko karta txapelketetako sariak banatuko dituzte. Jarraian mokadu bat egingo dute. ■

❖ HHI-EPA

Aurrematrikula egiteko epea

Helduen Hezkuntza Zentroak ireki du aurrematrikula egiteko epea. Bigarren Hezkuntzako titulaziorik ez dutenentzat honako ikastaroak daude aukeran: irakurtzen eta idazten ikasi, ezagutza orokorra berritu, seme-alabei etxekolanak egiten laguntzeko eskolak, DBHko titulazioa lortzeko edo Erdi Mailako Zikloetan sartzeko presatatu, euskara, ingelesa eta informatika. Bigarren Hezkuntzako graduazioa dutenak beste ikastaro haue- tan matrikulatu daitezke: 25 urtetik gorakoentzat unibertsitateko sarrera eta Goi Mailako Zikloetarako sarrera prestatzekoa. Matrikula egiteko astelehenetik ostiralera dute bulegoa irekita: goizeko 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Telefonoa: 943-335318. Helduen Hezkuntza Zentroa Antziola auzoko 62 zenbakian dago. ■

❖ UDAL EUSKALTEGIA

Udaberriko barnetegia ekaina hasieran

Udal Euskaltegiak udaberriko barnetegia antolatu du ekainaren 1etik 3ra. Azkoitira joango dira. Ostiraletan aterako dira, arratsaldeko 19:00ak aldera eta igande arratsaldean itzuliko dira. Izena emateak 50 euro inguru balio du (oraindik ez dute prezioa zehaztu). Plazak mugatuak dira eta izena emateko euskaltegiara deitu edo emaila idatzi beharra dago: izen-abizenak eta telefonoa utzi. Harremanetarako: euskaltegi@hernani.net edo 943-331896. ■

❖ FLORIDA

Floridan bizi izan direnen bazkaria

Floridan bizi izan direnak eta bizi direnak bazkaria egiten duten bi urtean behin. Hurrengo bazkaria maiatzaren 12an izango da, Etxeberriko Lagunartea soziedadean. Izenematea maiatzaren 2a baino lehen egin behar da honako telefono zenbaki hauetan: 943-554278 (Juanito) eta 663-031758 (Joxe Martin). ■

❖ BERTSO ESKOLA

Bertso Eskolako gazteak Errezilen

Iraulio Pantalone bertso eskolako gazteak, 8 eta 11 urte artekoak, Errezilen dira asteburu pasa, Gipuzkoako eskolarteko bertso txapelketa prestatzeko. Guztira 15 bertsolari gazte bildu dira, begirale eta guzti. ■

❖ SAN JOAN KONPARTSA

Maiatzaren 4an hasiko dira entsaioak

San Joan Konpartsako entsaioak maiatzaren 4an hasiko dira. Entsaioak ostiraletan eta larunbatetan izango dira. Ostiraletan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara eta larunbatetan, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Entsaioak Urumea ikastolako Gay Mur eraikineko lokaletan izango dira. San Joan jaietako aurtengo gaia *Paradorea* izango da. ■

❖ SAN JOAN KANTAITA

Entsaioa maiatzaren 4an

Maiatzaren 4an San Joan Kantaitako entsaioa izango dela jakinarazi dute. Zita arratsaldeko 20:30etan egin dute, Gay Murreko lokaletan. ■

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK · BEILATOKIA · SULABEA



☎ 943 332234
Faxa: 943 557901
24 h. : 902 402 900
www.funerariavascongada.com
e-mail: furehernani@terra.es

Bulegoak: Andoain, Donostia, Erreterria, Hernani, Lasarte, Pasaia, Tolosa



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILADEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

BALIABIDEAK

- ✓ Gimnasioa
- ✓ Liburutegia
- ✓ Infoteka
- ✓ Laborategiak
- ✓ Tailerrak
- ✓ Informatika gelak
- ✓ Ikasgelak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Ikus-entzunezko gelak
- ✓ Argazki laborategia
- ✓ Gela guztiak sarean konektatuak



Matrikula zaitez Hernani Institutuan

Aurrematrikulazioa Batxilergoan

Apirilak 23 - Maiatzak 4

09:00 - 14:00 egunero

16:00 - 18:00 astelehen, asteazkenetan

Batxilergoa

Teknologia

Giza eta Gizarte Zientziak

Natur eta Osasun Zientziak

Kaleak jendez bete ziren atzo Dantzari Txikien egunean, Dantzari Festari bukaera emateko

DANTZARI Txikiak eta haiek ikustera ateratako herritarrak agurra eman zioten atzo aurten Dantzari Festari. Hernaniko kaleetan ibili ziren, Hernaniko Ttarla dantza taldea; Irungo Ibarla Meaka dantza taldea; Anoetako Udala Anoetako dantza taldea; Errenteriko Ereintza dantza taldea; eta Donostiako Eskola, Goizaldi eta Trebeska dantza taldeak. Jarraian izan zituzten Alkarkideko dantzariak, garai bateko Alkartasunako dantzari ohiak, haiek ere Hernaniko kaleetan barrena. Dantza ekitaldiak eskaini zituzten kalez kale eta herritarrak eta gurasoak atzetik zituztela, bat baino gehiago dantzan.



Astebeteko festa

Dantzari Festa urtero egiten den festa da Hernanin, eta aurten 12garren aldiz aste osoko egitaraua osatu dute, emanaldi, erakusketa eta abarrekin. Kanean zehar egindako emanaldi eta kalejirak, auzoz auzo Euskal Herri guztiko dantzariak egindako dantzak, Euskal janzkien erakusketak egunero, Biteri kultur etxean, Patxi Perezen Erromeria, Dantzari Txikien eguna, eta abar. Ekitaldietan jende askok hartu du parte eta laguntzen ere elkarte eta herritar asko izan dituzte, urtero bezala. Arduradunak gustora azaldu dira, eta hurrengorako animatuta, baldintzek laguntzen badute. ■

«Udaleko diru laguntzak oso berandu jasotzen ditugu eta gure poltsikotik ari gara dirua jartzan»

Dantzari Festako talde antolatzailea keja da normatiba berriarekin. Epeaz gain, salatu dute iaz diru laguntza gutxitu ziela udalak "presoak gogoratzeagatik". Aurten ez dakite zer gertatuko den.

DANTZARI Festako talde antolatzaileak ekitaldien inguruko balorazio ona egin du, baina udalaren jarrerarekin oso kritiko azaldu da. Beren hitzetan, diru laguntzak oso berandu jasotzen dituzte eta horrek behartzen ditu dirua beren poltsikotik aurreratzera: "iaz eskatutako diru laguntzaren %60 abuztuan jaso genuen eta gainerako %40 aurten otsailean". Aurten zer gertatuko den ez dakite ziur, baina uste dute berriz ere berandu jasoko dutela diru laguntza eta berriz ere beren patrikatik jarri beharko dutela: "iaz esan ziguten aurten urtarrean egingo zela diru laguntza eskaria, baina aste-

azken honetan bukatu da epea eta asko luzatuko da". Beren hitzetan antolatzeak suposatzen duen lana "gutxi balitz" beren patrikatik dirua jarri beharra "onartezina da".

Ekitaldi gehiago

Gainera, dantzari festako talde antolatzaileak ekitaldi gehiago ere antolatzen ditu, tartean Santo Tomasetakoa: "eta laguntzaren %40 antolatzen dugun azken ekitaldia pasa eta ondorenean ematen digute. Horrek esan nahi du orain antolatutako ekitaldietako diruaren %40 agian otsailean jasoko dugula berriz ere". Antolatzaileen hitzetan, horrek egin beharreko ordainke-

tak asko atzeratzen dizkie eta "beti kezkatuta egon behar izaten dugu, diru laguntzak jasoko ditugun edo ez".

«Presoak gogoratzeagatik diru laguntzaren zati bat kendu egin ziguten iaz; aurten ez dakigu»

«Datorren urterako ezer aldatzen ez bada bertan behera gelditu liteke Dantzari Festa»

Presoen gogorapena

Urtero presoak gogoratzeko ekitaldia egiten dute Dantzari

Festan, eta iazko diru laguntzatik 400 eurotik gora kendu zizkien Udalak, Kronikari salatu diotenez. "Aurten ez dakigu zer gertatuko den, baina gure bildurra da berriz kenduko ote diguten diru laguntza". Talde antolatzaileak adierazi du, Udaletik esaten dietela presoen gogorapen ekitaldi hori "ez dela kultur ekitaldi bat", baina gogoratu dute aurten ere 350 dantzari izan direla agurra dantzatzan. Berei eta talde gehiagori ere kendu zien laguntzaren parte bat Dantzari Festako antolatzaileen hitzetan, "guk dakigula 4 talderi behintzat bai".

Hizketarako prest

Dantzari festako antolatzaileek

diotenez, diru-laguntzen normatiba berria taldeekin hitzartu gabe onartu zuen Udalak orain 2 urte. Berak prest azaldu dira talde guztiekin batean normatiba berri bat Udalarekin hitzartzen hasteko, baina eskatzen dute aurten ez aplikatu eta diru laguntza lehenbailehen ematea. Gaineratu dute, Udalak jarrera aldatuko ez balu, Dantzari Festa bertan behera gelditu daitekeela.

Herritarrei eskerrak

Bestalde, Dantzari Festako talde antolatzaileak eskerrak eman nahi izan dizkie, aurten ere lagundu duten elkarte, auzo elkarte eta abar luzeari. ■

Fisioterapia
KIMERA
Antziola 16 behe. ☎ 943 556 427

ORDUTEGI JARRAIA:
goizeko 08:00etatik
arratsaldeko 20:00ak arte

LESIO TRATAMENDUAK:
- Traumatologikoak: *esgintzeak, kontrakturak...*
- Reumatologikoak: *tendinitis, artrosia...*
- Neurologikoak: *hemiplegiak, paralisiak...*
- Kirol lesioak: *fibra hausturak, sobrekargak...*

TRATAMENDU TEKNIKAK
- Osteopatia
- Masajea
- Eskuzko terapia
- Elektroterapia:
ultrasonidoak, "onda corta"...

ISTRIPU ETA OSASUN ASEGURUAK / ETXeko ATENTZIOA

TRALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
☎ 943 33 15 06

SANTA BARBARA
PEUGEOT ZERBITZU OFIZIALA
PEUGEOT
GURE ZERBITZUAK: ☎ 943 55 11 39 / 943 33 15 90
Akarregi Poligonoa, 7. Pabiloia

MEKANIKA
ELEKTRIZITATEA
KARROZERIA
PREITV
ALINEAZIOA
GURPILAK, NEUMATIKOAK
DIAGNOSIA
IBILGAILU BERRIAK
AUKERAKO IBILGAILUAK
IBILGAILU KOMERTZIALAK
ENPRESEI ZUZENDUTAKO ZERBITZUAK

INSTALAZIO BERRIAK
AKARREGI-POLIGONOAN, 7. PAB.

Udaltzaingoaren egoitza berria inauguratu zuten ostegunean, Agustindarren plazan

Egoitza berriak salaketa gela, aldagela, jangela eta garaje zabala ditu, besteak beste.

Iñaki Arratibel: “Udaletxeko instalazioak ez zeuden behar bezala eta hemen Udaltzaingoak zerbitzu hobea eskaini ahal izango du”.

UDALTZAINGOAK aste guztia daramaki Agustindarren plazako egoitza berrian lanean. Ostegunean izan zen, ordea, inaugurazio ofiziala, eta Teo Zuloaga udaltzain buruak egoitza berria erakutsi zien Udaleko politikariei eta komunikabideei.

Udaltzaingoaren egoitza berria Agustindarren plazako 6 zenbakian dago, lehen solairuan. Oraindik ikurra atean jarri ez badute ere, datozen egunetarako jartzea espero dute, herritarrek erraz aurkitu dezaten. Egoitza hau aukeratzeko arrazoi nagusia kokaleku honek duen komunikazio ona izan da, ezinbestekoa udaltzaintzat eta erosoagoa herritarrentzat. Udaltzaingotik jakinarazi nahi izan dute, egoitza berriaz gain, telefono eta fax zenbaki berriak erakutsi dituztela: 943-248900 eta 943-248901, hurrenez hurren.

180 m²-ko egoitza modernoa
Egoitza berriak 180 m² ditu eta sailak ondo bereizteko ez dute arazorik izan. Sarreran,



Udaltzain bat egoitza berriko harrera gelan.

harrera gela eta bide heziketako bulegoa jarri dute; ondoren, salaketa gela; gero jangela, aldagela eta komunak (udaltzaintzat eta herritarrentzat); eta bukaeran, Zuloaga eta Ramirez arduradunen bulegoak. Horrez gain, azpimarratu dute garaje zabala ere izango dutela, 6 autorentzako, eta erabiltzen

duten material guztia egoki gorde ahal izateko

Udaltzain buruak egin zuten egoitzaren aurkezpena eta pozik azaldu zen instalazio berriekin: “Lehen, udaltxean, arazoak genituen behar bezalako zerbitzua eskaintzeko, leku txikia genuelako”. Egoitza berriarekin batera, Zuloagak jakinarazi

du udaltzainek PD tresna batzuk estreinatuko dituztela laister: “eskuzko ordenagailu antzeko batzuk eta inpresora bat ere badaramakite. Askok erraztuko digute lana: ulergarritasun eta denbora aldetik (aktak eta multak egiteko), estadistika egiterako orduan, memoria eta digitalizazioa...” Katalu-

nian oso erabiliak omen dira, eta Euskal Herrian lehenengoetako herria izango da Hernani hauek erabiltzen.

Arratibel: “Beharrezkoa zen egoitza berri bat”

Iñaki Arratibel Hirigintza zinegotziak adierazi nahi izan zuen Udaltzaingoak beharrezkoa zuela egoitza berri bat, “aurrekoa egoera kaxkarrean zegoelako”. Horrez gain, azpimarratu zuen Udalak Udaltzaingoa indartzearen alde egindako apustua eta epe motzean auto bat eta bi moto berri erosiko dituztela iragarri zuen. Berrikuntza hauek helburu bakarra dutela esan zuen: “Udaltzaingoak zerbitzu hobea ematea herritarrei”.

Udaltzaingoak telefono eta fax zenbaki berriak ditu: 943-248900 eta 943-248901.

Arratibel: «Udalak Udaltzaingoa indartzearen aldeko apustua egin du».

Ondoren, Antxon Costa Udaltzaingo zinegotzi arduradunak adierazi zuen, Udaltzaingoaren irudi berriarekin bilatzen dutela “herrian zabaldua” dagoen pentsakera aldatzea, “Udaltzainak multak jartzeko bakarrik daudela”, alegia eta Udaltzaingoa herritarrarengana hurbildu nahi dutela. ■

TEO ZULOAGA Udaltzain burua:

«Multetan flexibilitatez jokatzeko saiatzen gara, ez dugu legea estu aplikatzen»

Zergatik egoitza aldaketa?

Batipat, Udaletxe azpian zoko guztietan geundelako eta instalakuntzak traketsak zirelako: aldagela txikiak, sukalde txikia... Bestalde, herritarrei begira, pribazitate gutxi zegoen; bata salaketa jartzen, bestea ondoan zertifikatua egiten... Ez zen egoera egokiena.

Egoitza honen aldeko apustua egin zen herrigunean dagoelako eta urgentzietarako kokagune ezin hobea delako.

Egoitza aldaketarekin beste zerbait aldatu al da? Zerbitzuak, ordutegiak?

Udaltzaingoak orain arteko zerbitzu berberak eskainiko ditu, baina baldintza hobegotan. Ordutegia ere berbera da: 24 ordu.

Zenbateko plantila daukazu orain?

Kaleko eskaera gero eta haundia da eta taldea haunditzen ari gara gu ere. Orain lau udaltzaineko bost talde daukagu eta beste bi ari dira

bide heziketan. Txotx denboraldian sei lagunek errefortzua izan dugu.

Nola ikusten duzu txotx denboraldiaren gaia? Ze irtenbide izan dezake?

Azken txotx komisioan adostu dugu idatzi bat eta ez dugu giroa gehiago nahastu nahi, prentsan gehiegi azaldu baikara. Uste dut txotx denboraldiak eta igandero Hernanira etortzen den jende kopuruak sortzen duen egoerak estudio sakonak behar dituztela.

Ze gaiek sortzen dizute buruhauste gehien herrian?

Asteburuetak jende multzoak, eta trafikoa eta herritarren aparkaleku falta sentsazioak. Trafikoari dagokionez, Hernanik jasaten zuen “pasozko” trafikoa gutxitzea lortu dugu.

Multak dira herritarren keja nagusien iturri. Ordenantza berriarekin zerbait aldatu da?

Bai, jende asko ari da etortzen. Ordenantza berriari esker, isun arinetan

%90eko deskontua egiten dugu. Horren helburua da herritarrek ikustea gaizki egiten dutela eta betetzen da; ez da ohikoa lagun berbera birritan etortzea. Nahiz eta askok bestela pentsatu, multen helburua ez da dirua biltzea.

Multei dagokionez, flexibilitatez jokatzeko saiatzen gara. Ez dugu legea estu aplikatzen, egoera kontuan hartzen dugu eta horrela jarraitu behar dugula uste dut. Hala ere, uste dut multa gehiago jarri behar direla.

Zein kasutan jo behar du herritarrek Udaltzaingora?

Herrian gertatzen den edozer salaketa edo abisu emateko jo dezake herritarrek udaltzaingora. 112 telefonora deituz gero ere, askotan guri deitzen digute. Kasu bakoitza ahal den ondoen eta azkarren konpontze aldera, Ertzaintzarekin ere elkarlanean aritzen gara.



Garabiaren gaia nola dago?

Oraindik ez diogu erabilpen haundirik eman. Hiru udaltzainek bakarrik daukate garabia gidatzeko behar den E baimena. Laister beste bik aterako dute eta horrela turno guztiak beteko genituzke; horrez gain, seigarren bat ateratzea nahi dugu, ordezkapenentarako. Aurrerantzean, garabia gehiago erabiltzeko asmoa dugu, batez ere, zama lanetarako eta elbarrientzako lekuetatik autoak kentzeko. ■

Bola tiraldia gaur Ereñotzun, Presidente Txapelketako azkena

Antonio Miner da lehenengo herritarra eta bederatzigarren dago, lehenengotik 13 brilara. Goizean 10:00etan; arratsaldean 16:30etan.

EREÑOTZUKO bolatokian tiraldia izango da gaur, goiz eta arratsalde, Presidente Txapelketari bukaera emateko. Idiazabalgo Andoni Berasategi dioa txapelketako lider, 138 brilarekin eta Antonio Miner ereñotzuarra da lehen-dabiziko herritarra, 125 brilararekin, bederatzigarren postuan. Gaur, goizean 10:00-etatik 11:30etara izango da tiraldia eta arratsaldean 16:30-etatik 17:30etara, Ereñotzuko bolatokian.

Lehenengo asteko emaitzak

Joan den astean, Seguran Antonio Agirre segurarrak irabazi zuen, 48 brila botata. Lehenengo hernaniarrak Joxe Ugalde eta Antonio Miner izan ziren, 44na brilarekin. ||



Benta Berriko bolatokira sartu eta su eman diote bertako gauzei.

Atzo goizaldean Benta Berriko bolatokian zenbait gauza erre dituzte, bolako arduradunek Kronikari jakin arazi diotenez. Sarea moztuta sartu dira barrura, eta mahaia, aulkia, dokumentazioa, argazki panel bat eta abar erre dituzte. "Grazia egitera" sartu direla azpimarratu dute arduradunek, "han ez baitago ezer eramateko modukorik edo inoren interesekorik".

FUTBOLA

Garaipen argia, Hernani 5 - Berio 0

GORENGOEN taldeak erakustaldia eman zuen atzo Zubipen eta erraz nagusitu zitzaion Donostiako Beriori, 5-0.

Hasieratik nagusi

Azkar bideratu zuten partidua etxekoek, 25garren minuturako lehenengo gola sartu

baitzuten eta hamar minutura ia erabakita utzi zuten, bigarrenarekin. Atsedenaldira 2-0 iritsi zen partidua, eta bigarren zatian gol gehiago iritsiko ziren sentsazioarekin.

Beste hiru gol bigarrenear

Eta halaxe izan zen. Partiduak

lehenengo zatiko bidetik jarraitu zuen eta Hernanik nagusitasun osoz jokatu, beste 3 gol egin zituen. Aipagarria da, etxekoak partidua menderatua izan arren, aurkariari egindako presioa eta egindako lana. Txispa haundiarekin dago talde zuriberdea. ||

SASKIBALOA

Hernanik 59-43 irabazi zuen atzo Beasainen kontra

Hernanik nahiko erraz irabazi zion atzo Beasain taldeari, 59-43. Gipuzkoako liga bukatu da eta 7-10 posturako fase bat jokatzeko ari dira orain hernaniarrak. Bi partidua falta zaizkie fasea bukatzeko: datorren astean Easo Bren kontra eta hurrengoan Colegio Alemanen kontra. Horrekin bukatuko dute aurtengoa. ||

TXIRRINDULARITZA

Xabat Otxotorena 18garren Errioxako itzuliko bigarren etapan

Postu ona lortu zuen atzo Otxotorenak, baina ezin izan zuen indartsuenen taldean sartu. La Herrera lehen mailako portuan hautsi zen lasterketa eta 13 txirrindulariko taldea iritsi zen aurretik, guztien buru Caisse D'Epargneko Karpets eta Plaza. Lehenak etapa irabazi zuen eta bigarrena lider jarri zen. Xabat bigarren taldean sartu zen atzo eta sailkapen nagusian 16garren da. ||

ATLETISMOA



Maialen Adarraga eta Olatz Pavon 4garren luzera jauzian eta pisu jaurtiketan

Eskolarteko Gipuzkoako atletismo txapelketak izan ziren joan zen asteburuan Sagastialden eta infantil mailako 300 bat neska-mutilek hartu zuten parte bertan. Emaitzei dagokienez, nesketan La Salle izan zen irabazlea, bigarren Txingudi, eta hirugarren Orixe. Hernani 13garren gelditu zen, baina hiru atleta falta zituela hartu zuen parte. Mutiletan, Toki Alaik irabazi zuen, Arizmendi bigarren eta Oianguren hirugarren. Hernanik ez zuen talderik atera.

Atleta bakoitzaren lanari begiratu gero, azpimarratzekoa izan zen Maialen Adarraga eta Olatz Pavon hernaniarren lana. 4garren egin zuten biek, lehenengoak luzera jauzian eta bigarrenak pisu jaurtiketan. ||

PELOTA

Hernani-Orio gaur Urnietan, Herri Arteko lehenengo partiduan

Gaur hasiko du Hernanik Herri Arteko txapelketa, Orioren kontra, Urnietan, 11:00etatik aurrera. Hiru partidua jokatu dituzte gaur, eta datorren astean Orion jokatu dituzte beste hiru. Hernanik berez irabazteko kanporaketa du, faborito beraiek baitira, baina Oriok sorpresa emateko moduko taldea du, beraz, ez dute hernaniarrek erabat konfiatuta atera behar. Hernaniko taldean jokatu dute: kadeteetan, Ioritz Arrietak eta Aritz Otaegik; jubeniletan, Julen Garmendiak eta Aritz Salaberriak; eta nagusietan, Garikoitz Erroizeneak eta Aitor Gorrotxategik. Gaur, Urnietan, 11:00etan. ||

ARRAUNA

Hernani Mutrikun izango da gaur 11:00etan

Gipuzkoako Trainerilen ligan, Hernani Mutrikun ariko da gaur, 11:00etatik aurrera. Zarautz, Hondarribia eta Zumaia izango dira faborito aterako direnak, eta Hernanik lan txukun bat egin nahiko luke. Atzo 9garren postuan bukatu zuten Mutrikun (gaur bezala) jokatu zen estropadan, 14:28ko denborarekin. Atzo lehenengo Zarautz izan zen (12:55), bigarren Hondarribia (13:04), eta hirugarren Zumaia (13:11). ||

FUNERARIA ORBEGOZO EHORZKETA



24 orduko tfnnoa.

943 33 10 20

HERNANI - ANDOAIN - ASTIGARRAGA - ORIO - LASARTE - ERREENTERIA



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

▶

Denborapasak

S U D O K U - a

		5			8	1		6
2			5	3		8	7	
					4	5	6	
4			7		9			1
	3	6	1					
	2	7		5	3			8
6		1	4			9		

Hutsik dagoen kasila bakoitzean zenbaki bat jarri behar duzu, 1etik 9ra. Lerro, zutabe eta lauki (9 kasilekin osatutakoa) guztietan, 1etik 9ra zenbaki guztiak osatu behar dira. Baina, lerro, zutabe eta lauki bakoitzean ezin duzu zenbaki bera errepikatu.

AURREKO IGANDEKO ERANTZUNA

4	1	6	7	9	8	5	3	2
9	2	8	1	3	5	4	6	7
5	7	3	2	6	4	9	1	8
3	6	7	5	2	9	1	8	4
8	4	5	3	1	7	6	2	9
1	9	2	4	8	6	3	7	5
6	8	1	9	5	2	7	4	3
2	5	4	6	7	3	8	9	1
7	3	9	8	4	1	2	5	6

Zailtasuna: erdikoa

Flash batean...

‘Sasi guztien gainetik’
Raspa



Zuen argazkiak hemen argitaratuko ditugu. Ekarri Larramendi 11ra edo bidali e-mailez internet@kronika.net helbidera. Argazkiak Hernani edo hernaniarrekin zerikusia izan behar dute. Aukeraketa Kronikak egingo du.

✂ Asteko agenda

MAIATZAK 2, asteazkena:

- **HHI-EPA Matrikulazioa zabalik.** Maiatzaren 4a bitartean. 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

MAIATZAK 3, osteguna:

- **Bide heziketa.** Lehen marrazki erakusketa. 17:00etatik 19:00etara Biterin.

MAIATZAK 4, ostirala:

- **San Joan konpartsarako entsaioak.** Urumea ikastola-ko Gay Mur eraikinean 19:30etatik 20:30etara.
- **San Joan kantaitako entsaioa.** Urumea ikastolako Gay Mur eraikinean 20:30etan.
- **Bide heziketa.** Lehen marrazki erakusketa. 17:00etatik 19:00etara Biterin.
- **Hernaniko III Txistulari jaialdia.** Kontzertua: Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena. Sandiusterrin 19:30etan.
- **Goizueta: Txino auzoko festak.** 23:00etan Mus Txapelketa Zubi-Ondo tabernan.

MAIATZAK 5, larunbata:

- **Hernaniko III Txistulari jaialdia.** III Txistulari Gazteen Txapelketa. Sandiusterrin Goizean 10:30etan. Bazkaria 13:30etan. Arratsaldean 16:30etan.
- **San Joan konpartsarako entsaioak.** Urumea ikastola-ko Gay Mur eraikinean 17:00etatik 19:00etara.
- **Goizueta: Txino auzoko festak.** 11:00etan Haurrentzat jolasak; 12:00etan Txupinazoa; 12:30etan Herri Kirolak eta ondoren Goizuetako Korua; 15:00etan Bertso bazkaria; 18:30etan dantzariak; 20:00etan kontzertua eta DJak.



MAIATZAK 6, igandea:

- **Hernaniko III Txistulari jaialdia.** Txistularien topaketa. 9:45etan Arkupeetan elkarte; 10:00etan Diana; 11:00 Hamaiketakoa; 12:30etan Dantzaldia Plaza Berrin; 14:00etan Bazkaria; 18:30etan Kalejira.
- **Mendiriz Mendi.** Gaztetxoentzat irtenaldia: Irunberriko arroila. Irteetara Atsegindegin 9:30etan.
- **Igande musikatuak.** Tilosetan 18:00etan.
- **Gazte Txokoa.** Pin-pon txapelketa Pana parkean.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

MAIATZAK 12
ELKARTASUN EGUNA
HERNANIN

GOIZ OSOAN ZEHAR
DULTZAINEROAK, KANTARIAK,
14:00ETAN DANTZARIAK, TALOAK...

BERTSO BAZKARIA TILOSETAN
M. LUJANBIO, E. IZAGIRRE,
A. ARZALLUS. A. ZERAIN
TXARTELAK GARIN ETA RIOJAN
BAZKAL OSTEAN
HAUR JOLASAK TILOSETAN

19:30ETAN
MANIFA

12:00ETAN
KROSS HERRIKOIA
IZEN EMATEA GOIZEAN
ZEHAR PLAZAN

18:00ETAN
PELOTA DESAFIYUA

21:00ETAN
KONTZERTUAK
ORREAGA 778 • THE ZEPO • NAZKA

†

LOLI ANSA LEGARRETA
ANDREA
Herenegun hil zen, 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian Bego -
Senarra: Jose Gabriel Susenene; seme-alabak: Igor eta Aloña Oiartzabal; anai-arrebak: Pedro Mari eta Josefa Elizalde, Koro, Ana Mari eta Paco Mugica, Maria Jesus eta Antonio Arrieta; Isabel Susenene eta Koro Susenene; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! **GAUR IGANDEA, arratsaldeko SEIETAN Aranoko MARTIN DEUNAREN parroki elizan** egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Aranon, 2007ko apirilaren 29an
Helbidea: Ezkerranborda baserria
Añamendi, 8 (Lezo)
Oharra: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN goizeko 09:00ak arte egongo da.

TELEFONOAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 248900 1 DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103 1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 **FARMAZIAK** 1 *Egunez*: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 1 *Gauetz*: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087

EGURALDIA **GAUR** Gaur zerua lainotu antza izango dugu egun guztian, tarteka eguzki izpi batzuk ikusiko ditugun arren. Arratsalde aldera ekaizta izango da. Tenperaturak behera. **BIHAR** Ipar mendebalak eguna asko hoztuko du bihar. Euri jasak izango ditugu goizetik, ia egun guztian. Arratsaldeko azken orduetan atertuko du.



50. hamarkada bukaerako auzoko argazkia.

Sagastialdeko etxeek 50 urte bete dituztela eta, festa izango da maiatzaren 12an

Auzoak maiatzaren 1ean beteko ditu 50 urte. Maiatzaren 12an Galarreta jatetxean bazkaria egingo dute.

MAIATZAREN 1ean 50 urte beteko dira Sagastialdeko etxeak inauguratu zirela. 50 urte pasa dira, baita ere, auzoan aurreneko auzotarrak bizitzen jarri zirenetik. Garai haietan auzoko jaiak ere egingen ziren eta 50. urteurrena dela aprobetxatuta, auzoko

jaiak berpiztuko dituzte.

Urteurrena maiatzaren 1ean izan arren, maiatzaren 12an izango dute festa eguna. Asmoa da Sagastialden bizi diren eta bizi izan diren auzotarrak biltzea eta gainerako herritarrak auzora gerturatzea. Festa nagusia Galarreta

jatetxean egingo dute. Bazkalondorena girotzeko musika ere izango da.

Izen ematea

Bazkarirako izena emateko Kutxara jo behar da: 50garren urteurrena izeneko kontuan 30 euro ingresatu behar dira. ||

Egitaraua

12:00 San Jose Langilea parrokian meza.

Segidan, argazkiak ateratzeko bilduko dira Plazoletan, eta kotxeak antolatuko dituzte Galarreta jatetxera joateko. Autobusa ere izango da kotxerik ez dutenentzat.

14:00 Bazkaria. Bazkalondoa girotzeko musika izango da.

19:30 Autobusa izango da Galarretatik auzora itzultzeko.



Auzoko jaietako argazki bat, 50. hamarkada bukaerakoa.

PUBLIERREPORTAJEA



Mendi Lore dendak nagusi berria

Larramendi 5 zenbakiko lore dendak nagusi berria du otsailaren 9az geroztik. Oihane Fernandez nagusi berria, Lore Artean diplomatua da eta loreekin zerikusia duten hainbat gaietan ere bai.

Ezkontzetako lore sortak, eta baita dekorazioak (eliza, jatetxe eta kotxeak), hiletetarako lore eta koroak, egun berezietarako lore erramuak, etxe barruko landareak, kanporako landareak, lore lehor eta artifizialekin konposizioak... horiek denak lantzen ditu Mendi Lorek. Baduzue non aurkitu okasio berezietarako loreak: Larramendi 5, behea. Tlf.: 943 55 23 26 - 646 77 62 03. ||

ZINEA BITERIN

‘El ultimo rey de Escocia’ filma asteburuan

Asteburuan Biterin *El ultimo rey de Escocia* filma jarriko dute.

Filma Ugandara joan den mediku eskoziar bati buruzkoa da, eta gaur arratsaldeko 19:30etan jarriko dute, Biteri kultur etxean. ||

IRAGARKI MERKEAK

Kamarera bat behar dugu, asteartetik ostiralera menuak zerbitzeko, 13:00etatik 17:00etara. Kotxea beharrezkoa. **Deitu: 943 33 13 87**

Mertzeria traspasatu nahi dugu, jubilazioa dela eta. Funtzionamenduan dago eta bezeroak dituen mertzeria da. **Deitu: 943 55 10 74 - 943 55 71 11**

Lokala alokatu nahi dugu, jubilazioa dela eta. Eguzki perfumeria. Beste aktibitate bat jarri daiteke. **Deitu: 943 55 13 33**

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropaxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. **Deitu: 943 33 07 35** (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Dietista; argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza). Haserako eskaintza. Galdetu prezioa. Froga dohainik. **Atzietan 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Arotz profesionalak lan bikiak egingo lituzke. **Deitu: 656 78 64 15.**

PANTXOA ETA PEIO

USURBILGO OIARDO KIROLDEGIAN

MAIATZAK 5, 22:30TAN

SARRERAK:
USURBIL: LIZARDI ETA MAHUKA
DONOSTIA: ELKAR MEGADENDA

PREZIOA:
AURRETIK **10 EURO**
EGUN BEREAN **12 EURO**

Antziola-Motor

Salmenta eta tailer zerbitzua

Ford kontzesionario ofiziala

ORDUTEGIA:
ASTEAN:
9:00 - 13:00
15:00 - 19:30

Antziola auzoa 12

☎ 943 55 57 72

HERNANI